
HONTZ KUMEAK

Testua: MARTIN WADDELL

Irudiak: PATRICK BENSON

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 26,5 x 22 cm. 34 or. 15 €.

Hontz kumeak (euskaraz)

ISBN 978-84-7681-993-7. Gaur egungo klasikoak.

Las tres pequeñas lechuzas (gaztelaniaz)

ISBN 978-84-8464-318-0. Clásicos contemporáneos.

As tres curuxiñas (galegoz)

ISBN 978-84-8464-319-7. Tras os montes.

Els tres mussolets (katalanez)

ISBN 978-84-16804-19-1. Clàssics contemporanis.

Baziren behin hiru hontz kume: Sara, Peru eta Gille.

Zuhaitz bateko zulo batean bizi ziren Hontz Amarekin batera.

Zuloaren barruan adaxkak, hostoak eta hontz lumak zeuden.

Haien etxea zen hura.


Gau batean esnatu ziren eta Hontz Ama EZ ZEGOEN...

Hogeita bost urte bete dira *Hontz kumeak* liburuaren jatorrizko argitalpenetik, lehen irakurleentzako album samur arrakastatsua, amaren itzuleraren zain dauden bitartean adar batean pentsa eta pentsa ari diren hiru hegaztikumeren kezka inguruan eraikia. Arreba nagusia, anaia ertaina eta hiruretan txikiak bakarrik daude, gauez, eta ez dakite ama zergatik ez dagoen; hori dela eta, bakoitzak bere erara interpretatzen du amaren ausentzia: nagusiak azalpen logiko baten bila dabil, ertainak nagusiaren iritzia baieztatu eta etengabe eta txikiak amaren presentzia eskatzen du behin eta berriro.

Martin Waddell-en kontakizunak denbora aurrera nola doan erakusten du eta horren arabera hontz kumeen gogo-aldartearen garapena: segurtasun falta, kezka, nagusi gisa jokatzeko duen babes-sena eta ardura...

Patrick Benson-en ilustrazioek irakurlearen empatia areagotu egiten dute, basoko giro iluna irudikatzen dituztelarik, anai-arreben keinu-adierazkortasuna lehen planoetan, perspektiba bisual anitzak eta airetiko planoak.

Umore-sena ere ez da falta istorio honetan, tamaina-jolasaren bidez eta egitura errepikakorren bidez. Irakurlearen ikuspuntutik, obra honek –hizkuntza askotara itzulia– ederki islatzen du zer sentitzen duten umeei maite eta zaintzen dituen heldua falta denean.



■ **Galak:** emozioak, beldurrak, amaren/aitaren falta.

■ **Gomendatutako adina:** 2-3 urtetik aurrera.

■ **Alderdi azpimarragarriak:** haurtzarora, anai-arreben arteko harremana, familia; helduengandik banatzeko beldurra, afektuak; tamainak; natura.

Martin Waddell

(Belfast, 1941)

1966an argitaratu zuen bere lehen liburua, zinemara eramanean zuzendutako suspentsuzko nobela bat. 1972an, helduentzako literatura utzi eta haur eta gazteentzako idazten hasi zen. Azken 40 urteetan 150 idazlan baino gehiago argitaratu ditu, zenbait hizkuntzarara itzuliak izan direnak. Catherine Sefton goitizena ere baliatu izan du bere lanak sinatzeko. Besteak beste, Hans Christian Andersen, Greenaway domina, Smarties Book Prize Mother Goose sariak jaso ditu.

Patrick Benson

(Hampshire, 1956)

Marrasketa klasikoa ikasi zuen Florentzian eta Chelsea-ko eta St Martin-eko Arte Ederretako fakultateetan zabaldu zituen bere ikasketak. Ilustraziogintzan jardun aurretik modaren alorrean lan egin zuen. Liburu asko argitaratu ditu, eta haietatik *Hontz kumeak* izan da osperik handiena eman diona. Beste zenbait sariren artean Mother Goose (1984) eta Kurt Maschler (1995) izenekoak jaso ditu. Idazle eta ilustratzaile gisa ere hainbat lan argitaratu ditu.



www. **Kalandraka** .com

comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela** .com
etxea
soltxate@pamiela.com
